



LH-5. MAILA 2. UNITATE DIDAKTIKOA "Bizitza proiektua"



LH5-2UD.BIZITZA PROIEKTUA: IRIZPIDE ETA JARRAIBIDEAK



Bizitzaren arlo guztietan garatzearen beharra lantzen du: pertsonalean, familia arloan, gizartean eta lan arloan. Ideia hau lantzen da: zenbat eta oreka handiagoa izan lau arlo horietan, orduan eta beteagoa izango da gure bizitza proiektua eta orduan eta aukera handiagoak izango ditugu berdintasuneko harremanak eratzeko.

KONTZEPTU NAGUSIAK	BEHAKETA - AZTERKETA	ONDORIOAK - IKASKETAK
<p>1. Genero sistemaren ereduak identifikatu, aztertu eta gainditu. Eredu maskulinoak eta eredu femeninoak soilik (gehien bat eta bereziki) esparru batzuetan garatzeko baimenak eta aginduak ematen dituzte. Genero aurreiritziek laranja erdiak (pertsona erdiak) izatera bultzatzen dute, norberaren askatasuna eta berdintasunaren kaltetan.</p>	<p>1. Genero aurreiritziak gainditu. Ikasleek egiak eta gezurrak identifikatu dituzte? Zeintzuk ez? Bizitzaren zein arlokoak? Zergatik? Neskek zein mutilek egi eta gezur berak identifikatu dituzte? Antzeko zergatiak eman dituzte arrazoitzeko? Desberdintasunak egon dira? Zeintzuk? Zergatik? Antzeko esaldiak (aurreiritziak) entzun dituzte?</p>	<p>→ Norberaren bizitza proiektua, genero mugarik gabe. Berezkoa eta gaitasunak norberarenak dira, propioak, pertsona bakoitzarenak. Ez dugu sexuaren araberako berezko bat edota lantzeko gaitasun batzuk.</p> <p>→ Bizitzaren arlo guztietarako proiektua. Arlo guztietan askatasunez bizi eta garatzeko, guztietan pertsona autonomia eta arduratsua izateko.</p>
<p>2. Pertsona osoak, autonomoak eta arduratsua bizitzaren esparru guztietan. Ikasleen garapen integrala bizitza osorako, bizitzaren arlo guztietarako. Bizitzaren esparruak elkar lotuta daude, batean gertatzen denak besteetan eragina du, batean garatzen dugun ahalmena besteetan erabil dezakegu. Ez dira esparru estankoak. Gu beti gara gu, gure osotasunean.</p>	<p>2. Bizitzaren esparru guztietarako proiektua. Ondo identifikatu dituzte beste esparruetan eragina duten esparru bakoitzeko egoerak? Zeintzuk ez? Zergatik? Neskek zein mutilek egoera berberak seinatu dituzte? Eta euren bizitzarako sei egoera aukeratzeko? Desberdinak aukeratu dituzte? Zeintzuk? Zergatik? Zer esan nahi du horrek?</p>	<p>→ Bakoitzak bizitza proiektua garatzeko eta, nahi duenean, proiektua aldatzeko eskubide pertsonala du. Bizitza proiektua pertsonala eta besterenezina da.</p> <p>→ Nahi dugunarekin nahi dugun bitartean. Bizikideak aldatzeko eskubidea norberarena da. Nahi dugun pertsona ugari eta anitzekin partekatuzko proiektua da.</p>
<p>3. Bizitza proiektua egin eta berregin. Bizitzak ematen duenarekin (bizitzaren loterian tokatzen denarekin) eta norberak erabaki, bilatu, egin eta lortzen duenarekin osatzen eta egiten doa. Bakoitzak nahi duenarekin nahi duen denboran partekatuzko bizitza proiektu propioa.</p>	<p>3. Proiektua aukeratu, egin eta aldatu. Jadanik bizitzen ari diren egoera berberak seinatu dituzte neskek zein mutilek? Eta etorkizunerako, egoera berberak nahiko lituzkete? Bizitzaren esparru guztietan? Desberdintasunak daude? Zeintzuk? Zergatik? Zer adierazten du horrek?</p>	<p>→ Familia eta lagun artean partekatutako proiektuak positiboak eta egokiak dira, kideen bizitza proiektu pertsonalak errespetatzen, babesten eta indartzen dituzten bitartean.</p>

→ **Garapen integrala lortzeko bizitzaren esparru guztietarako proiektua.**

→ **Norberaren bizitza proiektua egiteko eta aldatzeko eskubidea bermatu.**